

ONGI ETORRI BERARA

Arratsalde on egindakoei
gaur txoko hontara buelta
eskertzen dugu zuen gogo
eskertzen dugu arreta
nahiz hizkuntza bat dagon esaldi
letra ta hitzez beteta
kontuz egiten bada mingainan
kokatzeko ariketa
euskara etxe izateraino
iritsi daiteke eta

Zuen kasuan ere etxetzat
bihurtzea genuke nahi
gure hizkuntza badugu baina
gure ohiturak ere bai
zingar arraultze, dios te salbe
gure inude eta artzai
inauteriak, herriko bestak,
herritar denen gozagai
ezagutu ta parte hartzera
hurbildu zaitezte lasai

Horretarako lehen pausua
gaur eman duzue jada
izanen dugu elkarren berri
ta ezagutuko gara
aniztasunak edertasuna
ekartzen du beharbada
herri hau ezta izango denon
konpromisotik ezpada
har zaitzatela euskarak ta har
dezazuela euskara

Aniztasuna ederra da, bai,
Ekhinek zion gisara
Endarlatzatic Lizuniagara,
Larundik Bidasoara
herria ez da haundia baina
tokia denentzat bada
Dударik edo bada, galdetu,
lasai, moldatuko gara.
ongi etorri gure herrira
ongi etorri Berara.



BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNITATEA

